

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Diputatu Nagusiaren 15/2019 Foru Dekretua, urtarrilaren 23koa, onartzen duena irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeei kultura jarduerak egiteko emango zaizkien diru laguntzen 2019ko deialdia

Beren estatutuen arabera kultura jarduerak garatzea helburu duten elkarte eta erakundeek sustatutako kultura ekimenei diru babesa ematea aurreikusita du 2019. urterako helburuen artean Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, baldin eta ekimen horiek Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian programatu eta gauzatzen badituzte.

Horretarako, nahitaezkoa da berariazko esparru bat ezartzea, sailak ematen dituen diru laguntzen xede diren kultura ekimenak arautzeko.

Kultura Ekintza Zerbitzuaren buruak egindako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea elkarte eta erakunde publiko eta pribatuek 2019. urtean sustatutako kultura jardueratarako diru laguntzen deialdi publikoa. Deialdiak, gehienez ere, 90.000 euro izango ditu, eta 2015eko urriaren 21eko ALHAOn (123. zenbakia) argitaratu zen Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera arautuko da. Foru Dekretu horren bidez, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumen esparruan lehiaketa bidez emango diren diru laguntzei aplikatuko zaizkien oinarri arautzaile orokorrak onartu ziren.

Bigarrena. Gastua Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: 70.1.05.73.02.481.00.01 (xedapen erreferentzia: 105.131.).

Hirugarrena. Organo eskudunak emango du, Kultura Ekintza Zerbitzuaren proposamena aztertuta, eman beharreko ebazpena, sei hilabeteko epean, gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertzeo errekurtsioa jar dakioko diputatu nagusiari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa) 42. eta 43. artikuluetan ezartzen dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua

IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko zuzendaria

JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO

Eranskina – Oinarriak

Lehena. Xedea eta helburua

Deialdiaren xedea da lehiaketa bidez diru laguntzak ematea, kultura elkarte eta erakundeek Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 20ra arte gauzatutako kultura ekimenei (Gasteizko udalerrian egindakoak izan ezik), Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren diru laguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu zituenak, xedatutakoaren esparruan.

Bigarrena. Aurrekontu egozpena, zenbatekoa eta diru laguntzen muga

Diru laguntzen zenbateko osoak ezin izango du inola ere gainditu horretarako bideratu den zuzkidura, hau da, 90.000 euro, eta Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko gastu aurrekontuaren 70.1.05.73.02.481.00.01 partidari egotziko zaizkio.

Diru laguntzek ezin izango dituzte gainditu eranskin honen zazpigarren paragrafoan zehaztutako ehunekoak, eta ezingo da, inola ere, 6.000 euro baino gehiago izan eskatzaile bakoitzeko, diru laguntza zenbat jardueratarako eskatu den kontuan hartu gabe.

Ez dute diru laguntzarik jasoko, behin baloratu ondoren, 500 eurora iristen ez diren eskaerak.

Hirugarrena. Elkarte eta/edo erakunde onuradunak eta baztertuak

Erakunde onuradunak:

Irabazteko xederik gabeko kultura elkarte eta erakunde publiko nahiz pribatuak, Araban edo Trebiñuko Konderrian baldin badute egoitza edo ordezkaritza.

Deialdi honen ondorioetarako, federazioetan, konfederazioetan edo antzekoetan elkartutako kultura elkarte eta erakundeek ez dute nor bere aldetik edo beste erakunde bateko kide gisa aurkezterik. Ez dira onartuko horrelako egoeraren batean egonik egindako eskaerak.

Baztertutako erakundeak:

Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren diru laguntzak esleitzeko oinarri arautzaileak onartu zituenak, hirugarren klausulan aipatzen dituzenez gainera, honako hauek ezin dira onuradun izan:

a) Kuadrillak, udalak, administrazio batzarrak, udal institutuak eta haietan sartuta edo haiei atxikita dauden edo haien partaidetza duten talde eta elkarteak.

b) Ganberak, kooperatibak, elkargoak, sindikatuak, merkatari elkarteak, teknikariak, langileak, enpresaburuak eta profesionalak oro har, ez eta haiei atxikita edo haietan sartuta dauden edo haietatik abiatuta sortu diren talde eta elkarteak ere.

c) Kirol taldeak, elkarteak eta federazioak.

d) Elkarteak, taldeak eta antzekoak, zeinen helburuen artean ez dagoen batez ere kultura izaerako jarduerak egitea, eta egiten dituztenak kultura izaerakoak ez badira.

e) Auzo, gazte, aisialdi eta denbora libreko elkarteak eta hezkuntza eta/edo prestakuntzarekin lotutako guztiak; adibidez, ikasle, ikasle ohi eta gurasoen elkarteak, besteak beste.

Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu ahal izango dira kultura sustatzeko jarduerak (elkarte edo erakunde bakoitzeko bi, gehienez ere), zeinen ezaugarriak esparru hauetan zehaztutakoari egokitu behar zaizkion:

1. Folklore eta herritarrek parte hartzeko kultura ekintzak.
2. Eszena eta musika arteak.
3. Arte plastikoak, ikusmen arteak eta ikus-entzunezkoak.
4. Literatura, irakurketa eta liburuak sustatzekoak.
5. Ondarearen eta kulturaren zabalkuntza.

Jarduera bakoitzak diruz lagundu daitekeen esparruetako batekin baino ez du izango lotura, oinarri honetan adierazten den bezala taldekatuta.

Diru laguntza jasotzeko edota jaso izana justifikatzeko, diru laguntza esleitzeko ebazpenak aurkakoa adierazi ezean, ez dira kontuan hartuko gastu hauek:

- a) Entitatea mantendu, kudeatu eta funtzionamenduan edukitzeko gastu orokorrak.
- b) Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharbertzeko gastuak.
- c) Bidaia, egonaldi, publizitate, ordezkaritza, protokolo, opari eta antzeko gastuak.
- d) Edozein argitalpenen edizio gastuak, berdin diolarik zein euskarritan eginak diren (papera, CDa, weba eta abar), ezta ondoren egingo den ustiapena ere.
- e) Dantzaldi eta jai, ospakizun, erromeria eta herriko jaien inguruko ekitaldiek sortutako gastuak, salbu eta Araban tradiziozkoak diren herri partaidetzako kultura ekintzak.
- f) Aisialdi eta/edo denbora-pasako jarduerak eragindako gastuak.
- g) Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (BEZaren kuota kengarria).

Proposatutako jardueraren gastuen artean kudeaketari, antolaketari, koordinazioari eta abarri loturiko gastuak badaude, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 10 hartuko da kontuan, gehienez ere.

Ez dira diruz lagunduko Arabako Foru Aldundiko edozein sailek zein haiei atxikitako edo haien eskumenekoak diren edozein erakundek sustatutako beste programa edo ekimen batzuetan jasotako jarduerak.

Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko diru laguntzenak, 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, 15.000 euro edo gehiago bada hornitzaile bakar baten eskaintzari egotzi ahal zaion diruz laguntzeko moduko gastuaren zenbatekoa, erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die gutxienez hiru erakunde hornitzaileari, zerbitzua emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa erakunde ez badago zerbitzu edo hornidura hori egiten duenik edo diru laguntza eskaera baino lehenago egin bada gastua.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuari zuzenduta bidali behar dira, I. eta II. eranskinetan argitaratzen diren ereduari lotuta.

2. Eskaerekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Administrazio agiriak:

1. Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.

2. Eskaera egiten duen elkarte edo erakundearen ordezkaritzan diharduela egiaztatzen duen agiria.

3. Erakundearen estatutuen fotokopia, eta deialdi honen egunean legez eratuta eta Elkartea eta Erakundearen Erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duten agiriak. Euskara, Kultura eta Kirol sailean aurretik aurkeztuta zituzten erakundeek ez dute zertan berriro aurkeztu, salbu eta aldaketaren bat egin badute eskaera aurkeztu zen datatik aurrera.

4. BEZetik salbuetsita dagoelako ziurtagiria, zerga administrazio eskudunak emana (aldez aurretik aurkeztu ez baldin bada) edo erakundeko presidente kargua doakoa delako aitortpena.

5. Federazioek euren baitako elkarrekin zerrenda aurkeztu beharko dute.

6. Eskaera hau aurkeztu baino lehen ez badira aurkeztu erakundearen identifikazio datuak, eta kontabilitateko hirugarrenen fitxategian erakunde horri alta eman ahal izateko, identifikazio fiskalaren txartelaren (IFZa) fotokopia aurkeztuko da.

b) Berariazko agiriak, II. eranskinaren arabera (bat jarduerako, gehienez bi):

1. Jarduera bakoitzaren azalpena:

– Helburuak.

– Plangintza eta garapena.

– Zein herritan egingo diren.

– Zein hizkuntzatan egingo diren.

– Genero ikuspegia gehitzea jarduerari.

2. Jardueraren diru sarreren eta gastuen aurrekontu xehatua, eta azalduz beste erakunde edo entitate publiko edo pribatuei egindako laguntza eskaerak eta entitatearen beraren ekarpenak.

3. Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko dauden baliabideak: giza baliabideak, baliabide materialak, azpiegiturak...

Eskatzaileak soldatapeko langilerik badu, bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko diru laguntzenak, 12.2 artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diola egiaztatu beharko du. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundearen egiaztagiria aurkeztuko ditu. Diru laguntza 800 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, 58/2004 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorritik. Zerga betebeharrei dagokienez, nahikoa izango da egunean daudela adieraztea, eta Foru Aldundiaren zeregina izango da egiaztagiria egitea, Foru Ogasunaren bidez.

Seigarrena. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zazpigarrena. Prozedura bideratzea eta balorazio irizpideak

1. Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ekintza Zerbitzua da espedientea izapidetzeko organo eskuduna.

2. Balorazio irizpideak:

A. Jardueraren eremua, kultura katearen prozesuetan haiek duten eraginarekin harremanetan. Jarduerak hauetan eragiten du batez ere:

– Laugarren oinarrian adierazitako kultur eremuetako zeinahitan prestatzea eta sortzea: 45 puntu.

– Kulturaren eremuko programazioa, zabalkundea eta erakusketa: 35 puntu.

B. Jardueraren ekarpena kultura sustatzen eta bultzatzen.

– Jardueraren izaera berritzailea. Proposamenaren originaltasuna eta berritasuna eta udalerrian antzeko jarduerarik ez egitea: 20 puntu.

– Kultura proposamenak ibilbide luzea izatea eta finkatzea. Jarduera gizartean errotuta egotea bost urtez baino luzaragoan: 10 puntu.

– Aurreko irizpideetakoren bat ez betetzea: 0 puntu.

C. Aurkeztutako proiektuaren kalitatea.

– Helburuen deskribapen koherentea eta zehatza, plangintza, aurrekontu xehekatua eta jardueretarako eskueran diren baliabideak: 15 puntu.

– Aurkeztutako atalen artean hutsuneak nabari dira: 5 puntu.

– Ez dago helburuen deskribapenik, ez plangintzarik, aurrekontu xehekatu edo jardueretarako eskueran baliabiderik: 0 puntu.

D. Euskara.

– Bi hizkuntzatan edo euskaraz egindako jarduerak: 10 puntu.

– Zehaztu gabe: 0 puntu.

E. Genero ikuspegia.

– Berdintasunari buruzko edukiak jasotzen dituzten kultura jarduerak: 10 puntu.

Balioetsi egingo dira kontuan hartu diren jardueraren helburuen artean emakume eta gizonen egoera eta beharrak, emakume eta gizonen parte hartzea jardueraren garapenean eta jarduera horrek zer ekarpen egiten dion berdintasunari. Kontuan hartuko da, halaber, parte hartzen duten pertsonen zer prestakuntza duten genero arloan.

– Gutxienez: 5 puntu.

– Zehaztu gabe: 0 puntu.

Irizpide bakoitzari dagozkion puntuen batuketak guztirako kopuru bat izango du emaitza, eta eskala honetara ekarrita, emaitza horren arabera diru laguntza ehunekoa adieraziko du, diru laguntza kalkulatzeko aurrekontua oinarritzat hartuta.

Puntu kopurua	Diru laguntzaren ehunekoa, gehienez
0-44	0
45-64	55
65-84	75
85-100	90

Eskaera kopurua eta jaso beharreko zenbatekoak direla-eta, eman beharreko diru laguntzaren zenbateko osoak diru laguntzaren diru hornidura gaindituko balu, eta, beraz, diru laguntzen zenbatekoak murriztea beharrezkoa balitz, horiek proportzio berean murriztuko zaizkie diru laguntzaren erakunde onuradun guztiei.

Zortzigarrena. Ebazpena

1. Eskaerak Balorazio Batzordeak aztertuko ditu. Batzordeburua Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kultura Ekintza Zerbitzuaren burua eta aipatutako zerbitzuari atxikitako bi teknikari. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren burua izango da idazkaria, eta hitza izango du, baina botorik ez.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espediente atzeratzea, eta baita artxibatzea ere.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

2. Eskatzaileari ez zaio entzunaldiko izapiderik eskainiko, ebazpenean eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak besterik ez direlako aintzat hartuko.

3. Organo eskudunak eman beharreko ebazpena emango du, Kultura Ekintza Zerbitzuak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde interesdunek ezetsitatz jo ahal izango dute eskaera.

4. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzaileari eman zaion diru laguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

5. Diru laguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertu beharko dira: diru laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta diru laguntza zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpenaren berri emango zaie onuradunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

6. Diru laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

7. Hainbanaketa aplikatzearen ondorioz jasotzekoa den diru laguntza murriztuz gero, eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko diru laguntzenak, 25. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, onuradunari eskaera berriro egitea eskatu ahalko zaio, konpromisoak eta baldintzak egokitu ditzan eman dakioken diru laguntzara.

8. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, nahi izanez gero, errekurtsua aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso ondorengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Bederatzigarrena. Emandako diru laguntzak ordaintzea eta justifikatzea

1. Ordainketa era honetan egingo da:

– Emandako diru laguntzaren zenbatekoaren ehuneko 60, justifikatu beharreko aurrerakin moduan, esandako ebazpenaren datatik aurrera ordainduko da.

– Gainerakoa batera ordainduko da, egindako gastuak, behar bezala zerrendatuak, justifikatu ondoren, eta azken ordainketa horri aurreko paragrafoan aipatutako "aurrerakina" kenduta. Gastu guztien froga-agiriak aurkezteko epea 2019ko abenduaren 20an amaituko da.

Egiatzatzen ez bada ordaindu direla eskuratutako diru aguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak, justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da ordainketa. 500 eurotik gorako gastuen ordainketa baino ez da egiaztu beharko.

2020ko otsailaren 21erako aurkeztu beharko dira, beranduenez, diru laguntza justifikatzeko gastuak ordaindu izana egiaztatzeke agiriak.

Elkarte eta erakundeek beren baimena espresuki adierazi baldin badute, ez da beharrezkoa izango aurkeztutako hiruhileroko 110 ereduak (PFEZeko atxikipenak eta konturako sarrerak) aurkeztea eta horiek ordaindu direla egiaztatzea, ez eta 190 eredu ere (Atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena).

2. Gastuak frogatzeko, entitate onuradunek justifikazio kontu erraztua aurkeztuko dute, zeina arautzen baitute urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Hsitorikoko diru laguntzenak, 28.1 eta 2 artikuluetan eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren lehia bidezko diru laguntzen oinarri arautzaileak onartzen dituenak, 10. artikuluan, eta, horretarako, nahitaez bete beharko dute III. eranskina.

Honela egongo da osatuta justifikazio kontu erraztua:

1. Diru laguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duen txostena, burututako ekintzak eta lortutako emaitzak adierazita.

2. Jardueraren gastu guztien zerrenda sailkatua, hau da, jardueraren aurrekontu osoa; zerrendan jarri beharko dira hartzekoduna, gastuen agiria edo faktura, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data.

3. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera eta diru laguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

4. Hala badagokio, itzulketaren ordain gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; bai eta horietatik eratorritako interesena ere.

Banaka edo multzoka gastu kontzeptu bererako 1.000 euro (BEZa aparte) gainditzen direnean bakarrik aurkeztu beharko dira jatorrizko fakturak edo balio bereko agiriak, bai eta 500 eurotik gorako gastuak ordaindu izanaren froga-agiriak ere.

Organo bideratzaileak egokitzen dituen dokumentu, argibide, froga-agiri eta faktura guztiak eskatu ahal izango dizkie entitate onuradunei, diru laguntza dagokion xederako ez besterako erabili izanaren arrazoizko ebidentzia lortzeko.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Igorlea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZa.
- Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZa.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

Orobat, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa zerga araudia betetzen ez duten faktura edo ordainagiriak, PFEZeko (pertsone fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei dagokienez.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauetako edozein onartuko da:

- Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.
- Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Jatorrizko bankuko kontu laburpenak, posta arruntez jasoak.
- Kontu korronteen libreten kopia erkatua, mugimenduak ageri dituenak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.
- Jatorrizko erosketak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza gune eta autobideetakoak, bidaia txartelak eta abar), edo jatorrizko fakturak, enpresa emaileak ordainduta daudela adierazteko jarritako zigiluarekin.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2019 ekitaldirako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

3. BEZaren kuota jasanak diruz lagundu daitekeen gastutzat joko dira, gizarte izaerako erakunde edo establezimenduek emandako zerbitzuengatik, izaera hori onartuta izatea gorabehera, baldin eta kasu bakoitzean aplikagarri diren baldintzak betetzen badira (BEZaren Foru Arauaren 20. Hiru artikulua, arauaren 20. Bat artikulua 14. paragrafoan jasotzen duen salbuespena egiteko).

Hamargarrena. Diru laguntzen bateraezintasuna

Deialdi honetan emandako diru laguntzak bateraezinak izango dira, diru laguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorretan ezarritakoa gorabehera, Arabako Foru Aldundiko beste sail batzuetatik edo haiei atxikitako erakundeetatik kultura ekimen berberetarako jaso daitezkeen diru laguntzekin.

Hamaikagarrena. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahaleginak egingo dira hedabideetan ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Euskera, Kultura eta Kirol
Saila

Irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeen dirulaguntza eskaera, kultura ekimenak egiteko (I. eranskina)

2019

Solicitud de subvención para el desarrollo de iniciativas culturales
asociaciones y entidades sin ánimo de lucro (anexo I)

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

Eskaera zk. ■ N° Solicitud

Eskaera data ■ Fecha Solicitud

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

IKZ ■ CIF

Sozietatearen izena ■ Razón social

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herría ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL ⁽²⁾

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herría ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

Identifikazio zk. ■ N° identificativo

Sexua ■ Sexo

NAN
DNI

AIZ
NIE

Besteren bat
Otro

Emakumea
Mujer

Gizona
Hombre

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido


Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefonoa ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Orria ■ Hoja 1/4

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p>	<p>Irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeen dirulaguntza eskaera, kultura ekimenak egiteko (I. eranskina)</p> <p>2019</p> <p>Solicitud de subvención para el desarrollo de iniciativas culturales asociaciones y entidades sin ánimo de lucro (anexo I)</p>
	<p>www.araba.eus</p>

Euskera, Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS ⁽³⁾

(Banku helbideratzearen datuak aidatu badira bete solilik ■ Cumplimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

BANKUA ■ BANCO	
IBAN	SWIFT

(FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)	(ESKATZAILEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la persona SOLICITANTE)
<p>Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■</p> <p>Conforme entidad financiera (firma y sello)</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p>Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua "ESKATZAILEA" atalean ageri den pertsona fisiko edo juridiko interesdunaren izenean eta IFZarekin dagoela irekita, eta pertsona interesdun hori kontuaren titular gisa ageri dela</p> <p>La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al NIF y nombre de la persona física o jurídica interesada que figura en el apartado "SOLICITANTE", y que dicha persona interesada figura como titular de la cuenta.</p>	<p>Hirugarren interesdunaren sinadura edota entitatearen zigilua ■</p> <p>Firma de la persona interesada y/o sello de la entidad interesada</p> <p>.....(e)ko.....aren.....(e)an</p> <p>En....., a..... de..... de.....</p> <p>ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT:</p> <p><input type="checkbox"/> Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan, ESKAERA HONI IFZ-REN FOTOKOPIA ERANTSITA</p> <p><input type="checkbox"/> Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan</p> <p>INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES:</p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava, para lo cual <u>SE ADJUNTA FOTOCOPIA DEL NIF A LA PRESENTE SOLICITUD</u></p> <p><input type="checkbox"/> Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.</p>

Orria ■ Hoja 2/4



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Euskera, Kultura eta Kirol
Saila

Irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeen dirulaguntza eskaera, kultura ekimenak egiteko (I. eranskina)

2019

Solicitud de subvención para el desarrollo de iniciativas culturales asociaciones y entidades sin ánimo de lucro (anexo I)

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

JARDUEREI BURUZKO DATUAK ■ DATOS DE LAS ACTIVIDADES

(Lau jarduera / programa gehienez ■ Máximo cuatro actividades / programas)

1. jardueraren / 1. programaren izena ■ Denominación de la actividad 1 / programa 1	
Aurrekontua BEZa barne ■ Presupuesto IVA incluido	
Eskatutako zenbatekoa ■ Importe solicitado	
Norberaren ekarpena ■ Aportación propia	
Beste sarrerak ■ Otros ingresos	
2. jardueraren / 2. programaren izena ■ Denominación de la actividad 2 / programa 2	
Aurrekontua BEZa barne ■ Presupuesto IVA incluido	
Eskatutako zenbatekoa ■ Importe solicitado	
Norberaren ekarpena ■ Aportación propia	
Beste sarrerak ■ Otros ingresos	

PERTSONA INTERESDUNAREN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA ■

DECLARACION RESPONSABLE DE LA PERSONA INTERESADA

(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

- Entitateak soldatapeko langileak dauka ■
La entidad solicitante tiene personal asalariado a su cargo
- Erakunde eskatzaileak jasandako BEZaren kuota konpentsatu edo berreskuratzeko eskubidea dauka ■
La entidad solicitante tiene derecho a compensar o recuperar la cuota de IVA soportada
- Administrazioari edo dagokion erakundeari baimena ematen diot diru-laguntzaren ordainketa edota zuriketa egin ahal izateko premiazko diren fiskallitate datuen gaineko informazioa eskatzeko ■
Autorizo a solicitar a la administración u organismo correspondiente información relativa a los datos de carácter fiscal que tengan relación directa con los requisitos para el abono y/o justificación de la subvención
- Berariaz baimena ematen dut nire datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiak trata ditzan, baldin eta dirulaguntza hau kudeatzeko helburuz bada. ■
Manifiesto mi consentimiento expreso para que Diputación Foral de Álava (DFA) trate mis datos personales para la finalidad de gestionar esta subvención.

(Tokia eta data ■ Lugar y fecha)

Eskatzailearen/ordezkararen sinadura ■ Firma de la persona solicitante/representante ⁽⁴⁾

Orria ■ Hoja 3/4



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundearen dirulaguntza eskaera, kultura ekimenak egiteko (I. eranskina)

2019

Solicitud de subvención para el desarrollo de iniciativas culturales asociaciones y entidades sin ánimo de lucro (anexo I)

Euskera, Kultura eta Kirol
Saila

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

ERANTSITAKO AGIRIAK ■ DOCUMENTACIÓN QUE SE ADJUNTA

(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

- NANaren fotokopia** ■
Fotocopia del DNI
- Erakundearen ordezkarri lanetan diharduela egiazatzen duen agiria** ■
Documento que acredite la representación de la Entidad
- BEZaren salbuespenaren ziurtagiria, zerga administrazio eskudunak emana (baldin eta alde zuretik aurkeztu ez bada) edo erakundearen presidenteari kargua doakoa delako adierazpena** ■
Certificado de exención de IVA expedido por la administración tributaria competente (si no ha sido presentado anteriormente) o declaración del carácter gratuito del cargo de presidente de la entidad
- Estatutuaren fotokopia (aurretiaz ez badira aurkeztu edo aldaketarik badago)** ■
Fotocopia de los Estatutos (si no han sido presentados anteriormente, o han sufrido algún cambio)
- Erakundearen IFZaren fotokopia (aurretik ekarri ez bada)** ■
Fotocopia del NIF de la Entidad (si no ha sido aportado con anterioridad)
- Gizarte Segurantzaren ordaintzetan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria (soldatepeko langilerik balu)** ■
Certificado de estar al corriente en la Seguridad Social (sólo si tiene personal asalariado)

Oharra (1)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak xedatutakoari jarraituz, jakinarazten dizugu eman dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko **Kultura delialdiak** izeneko fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamendua Arabako Foru Aldundiak kultura ekitaldien berri jakin nahi duten pertsonentzako informazioa kudeatzeko eta zabaltzeko egiten da. Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla, eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, legez ezarritako kasuez kanpo. Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, DBEOK aitortzen dituenak, eta, horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo beharko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba). Argibide gehiago:
<http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

Oharra (2)

Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoko bakarraren helbidea (EBH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduratan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Oharra (3)

Zuk emandako banku datuak hirugarrenen eta interesdunen fitxategian erregistratuko dira, zeina Administrazio honen titularitatekoa baita, aurrekontu gauzatzeari eta aurrekontuz kanpoko gauzatzeari dagozkion eragiketen izapideak egiteko. Atal honetan emandako datuak ez dira tratatu edo komunikatu, baldin eta lehenago egindako ordaintzeten ondorioz, dagoeneko alta eman bazaie identifikazio eta banku datuei, berriro ere kobratzea hautatzeko eman direnei

Oharra (4)

Berdintasunaren arloko araudia betez, honako hau ADIERAZTEN DUT LEHENENGOA.

Ez ordezkatzeko dudako elkarte edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezin kidek ez duela sexua dela eta inor baztertzeko, ez zuzenean ez zeharka, onarpen prozesuetan edo funtzionamenduan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 24.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

BIGARRENA.

Ez ordezkatzeko dudako elkarte edo erakundeak, ez elkarte edo erakunde horretako gobernu edo administrazio organoetako ezin kidek ez duela zigorririk izan, ez arlo penalean ez administrazioan, sexua dela eta inor baztertzeko, eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasun arloko xedatutakoak urratzeagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, lan arloko arau hausteei eta zehapenei buruzko legearen testu bateratua onartzen duenak, ezarritakoaren arabera.

Nota (1)

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que usted nos facilita van a ser incluidos en el Fichero denominado *Convocatorias culturales* titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión de información y comunicación dirigidas a personas interesadas en actividades culturales. Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente. Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava). Para más información:
<http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>.

Nota (2)

Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una dirección de correo electrónico única (DEU) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente.

Nota (3)

Los datos bancarios facilitados por usted se registrarán en el Fichero de Terceros e interesados titularidad de esta Administración para realizar la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria y extrapresupuestaria. No se tratarán ni comunicarán los datos cumplimentados en este apartado si como consecuencia de pagos realizados con anterioridad, ya estuvieran dados de alta los datos identificativos y bancarios por los que de nuevo se optara para el cobro.

Nota (4)

En cumplimiento de la normativa en materia de Igualdad DECLARO:

PRIMERO.

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, realizan actos de discriminación directa y/o indirecta por razón de sexo en los procesos de admisión o en el funcionamiento de conformidad con lo estipulado en el artículo 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

SEGUNDO.

Que ni la asociación u organización a la que represento, ni persona alguna de las que forman parte de sus órganos de gobierno o administración, han sido sancionadas penal y/o administrativamente por discriminación por razón de sexo y/o por infracciones en materia de igualdad entre mujeres y hombres derivadas del Texto Refundido de la Ley de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.

Orria ■ Hoja 4/4



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

Irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeen dirulaguntza eskaera, kultura ekimenak egiteko (II. eranskina)

2019

Solicitud de subvención para el desarrollo de iniciativas culturales asociaciones y entidades sin ánimo de lucro (anexo II)

Euskera, Kultura eta Kirol
Saila

Departamento de
Euskera, Cultura y Deporte

IZENA ETA DESKRIBAPENA ■ NOMBRE Y DESCRIPCION

Jardueraren izena ■ Nombre de la actividad

Zein herritan eta noiz egingo den ■ Localidad y fecha de ejecución

Jardueraren deskribapena ■ Descripción de la actividad

Xedeak ■ Objetivos

Jardueraren planifikazioa eta garapena ■ Planificación y desarrollo de la actividad

KULTURA SUSTATZEKO ETA BULTZATZEKO EKARPENA ■ CONTRIBUCIÓN A LA PROMOCIÓN y FOMENTO DE LA CULTURA

(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

Izaera berritzailea ■ Carácter innovador
(Labur-labur azaldu zertan datzan berrikuntza ■ Explicar brevemente en qué consiste tal innovación)


Denboran zehar finkatu izana ■ Consolidación a lo largo del tiempo

Jardueraren hasiera urtea ■ Año de inicio de la actividad

Zenbat edizio izan dituen ■ Nº de ediciones realizadas

<input type="checkbox"/>	Jardueraren hasiera urtea ■ Año de inicio de la actividad	
<input type="checkbox"/>	Zenbat edizio izan dituen ■ Nº de ediciones realizadas	

II. eranskina bete beharko da aurkezten den jarduera bakoitzeko. Eskuragarri duzu digitalean www.araba.eus web guneetan ■
El presente Anexo II deberá ser cumplimentado por cada actividad que se presente. Disponible digitalmente en www.araba.eus
Orria ■ Hoja 1/2



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

Irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeen dirulaguntza eskaera, kultura ekimenak egiteko (II. eranskina)
2019
Solicitud de subvención para el desarrollo de iniciativas culturales asociaciones y entidades sin ánimo de lucro (anexo II)

Euskera, Kultura eta Kirol Salla

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

JARDUERAREN HIZKUNTZA ■ IDIOMA EN EL QUE SE VA A DESARROLLAR LA ACTIVIDAD
(Adierazi dagokiona ■ Marcar lo que corresponda)

- EUSKARA
- ELEBIDUNA euskaraz eta erderaz ■ BILINGÜE euskera y castellano
- GAZTELANIA edo beste hizkuntza batzuk ■ CASTELLANO u otros

GENERO IKUSPEGIA ■ PERSPECTIVA DE GENERO

Jardueraren berdintasun edukiak ■ Contenidos de igualdad incluidos en la actividad

--

AURREKONTUA ■ PRESUPUESTO

Aurreikusitako gastuak ■ Gastos previstos		Aurreikusitako sarrerak (Norberaren ekarpena, besterena, kuotak...) ■ Ingresos previstos / (Aportación propia, de otras entidades, cuotas...)	
Kontzeptua ■ Concepto	Zenbatekoa ■ Importe	Kontzeptua ■ Concepto	Zenbatekoa ■ Importe
GUZTIRA ■ TOTAL		GUZTIRA ■ TOTAL	

BALIABIDEAK ■ RECURSOS DISPONIBLES

(Giza baliabideak, baliabide materialak, azpiegiturak... ■ Recursos humanos, materiales, infraestructuras...)

--

II. eranskina bete beharko da aurkezten den jarduera bakoitzeko. Eskuragarri duzu digitalean www.araba.eus web guneetan ■
El presente Anexo II deberá ser cumplimentado por cada actividad que se presente. Disponible digitalmente en www.araba.eus
Orria ■ Hoja 2/2



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

2019

Irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeen dirulaguntza eskaera, kultura ekimenak egiteko III. ERANSKINA – JUSTIFIKAZIO KONTU ERRAZTUA

Solicitud de subvención para el desarrollo de iniciativas culturales asociaciones y entidades sin ánimo de lucro ANEXO III – CUENTA JUSTIFICATIVA SIMPLIFICADA

Euskara, Kultura eta Kirol Saila Departamento de Euskera, Cultura y Deporte

1. JARDUNAREN MEMORIA

Dirulaguntza ematerakoan ezarriakotako baldintzak nola bete diren justifikatu da memoria horretan, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azalduz. Laguntza ematerakoan ezarri ziren baldintzak nola bete diren justifikatzen memoria honi behar bezain luzea eta zehatza izango da.

2. EGINDAKO GASTUEN ZERRENDA IZENDUNA

Irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeek kultura jardueretarako dirulaguntzak emateko 2019ko deialdi publikoan euroko dirulaguntza jaso da, aurrekontu osoa euro izanik. Hori dela eta, jaunak/andreak elkarte eta edo entitateak ordezkatuz, en

1. MEMORIA DE ACTUACIÓN

Debe ser una memoria justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos, deberá tener la extensión y detalle suficiente para justificar el cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión.

2. RELACIÓN NOMINATIVA DE LOS GASTOS REALIZADOS

En relación con la subvención concedida dentro de la convocatoria pública de subvenciones para el desarrollo de actividades culturales para el ejercicio 2019, realizadas por Asociaciones y Entidades sin ánimo de lucro, por importe de euros, con un presupuesto total de euros, D. / D^a en representación de la Asociación o Entidad

CERTIFICA:

Que se ha cumplido la finalidad de la subvención percibida, que los datos anteriormente relacionados son ciertos, que los mismos se han destinado al cumplimiento de la actividad realizada y que la misma se ha realizado dentro del plazo de ejecución concedido, acreditando además que el gasto realizado, que se relaciona a continuación, ha sido objeto de reconocimiento de la obligación en la contabilidad de la Entidad.

Fakturak edo lortze data Nº factura y fecha de emisión	Honkaria Proveedor	Kontzeptua Concepto	Zentbatekoa ■ importe (1)	BEZ ■ IVA (2)	PFEZ ■ IRPF (3)	Garbia ■ Neto (1+2-3)	Guztira ■ Total (1+2)	Ordaintza egia Fecha de pago (behar denean) (en su caso)

Jarduerak betiarik edo agiri baldintzek erabiltzen direla, banku edo gastu kontuaren arabera multazketada 1.000 euro gainditzen dituztenak (BEZA sartu gabe), baita horiek (500,00 euro baino gehiagorek baldin) ordaintzen izanaren frogariak ere.

- Honako dirulaguntza, laguntza edota diru sarrea hauen bntu direla xede bererako:
 Que para la misma finalidad se han obtenido las siguientes subvenciones, ayudas y/o ingresos:

Enkondea ■ Entidad	Zentbatekoa ■ importe

Sinadura eta zigilua
Firma y sello

- Ez dela beste inongo dirulaguntza, laguntza edo diru sarrearik jaso.
 No se ha obtenido ninguna otra subvención, ayuda o ingreso.
 , 2019ko azen a En de de 2019